

PARETEN ARTEAN

Egia auzoko Karmengo ama 52an aurki dezakezue nire tailerra eta erakusleihoa. Era berean, nire lanak sarean ere topa ditzakezue. 10 urterekin hasi nintzen artearen munduan murgiltzen, Gipuzkoako Artisten Elkartean. Gerotik autodidakta izan naiz eta testurekin esperimentatzea izan da nire lanen oinarria. Harrizko paretak margotzeko ideia naturalki etorri zitzaidan duela lau urte, betidanik izan bainaiz mendizalea eta nire obretan natura irudikatzea gustuko izaten dut. Gaztetan eskalatzen ibiltzen nintzen eta paretak ordutik erakarri izan naute. Gainera, koadro bakoitzaren prozesua berriro ere nire burua paretan zintzilik sentituko banu bezala bizi dut. Zintzilik helmugara igotzen. Emakumeen ahalduntzearekin ere lotzen ditut lan hauek: paretak igotzen gehienbat emakumeak margotu izan ditut, emakume kirolariari ikusgarritasuna emateko alde batetik, eta bestetik, sinbolikoki emakumeen borroka irudikatzeko. Berdinstaunerako helmugarantz doazen emakumeak ikusten ditut paretan gora, etsi gabe.

Arantxa Arratibel

